

ESTILO ARAUAK – ZUZENBIDEKO GRALa

Gida hau ez da nahitaez bete beharrekoa: ikasleei jarraibide batzuekin laguntzeko helburua besterik ez du. Ezinbestean bete beharrekoa da, ordea, UPV/EHUko Zuzenbide Fakultatean gradu amaierako lanak egin eta defendatzeari buruzko Arautegia (Fakultateko Batzarrak 2024ko uztailaren 23ko saioan onartua).

1. Lanak 25 eta 50 orrialde bitartean izango ditu, gutxi gorabehera, formatu estandar honetan:

- Letra tipoa eta tamaina: EHUko tipografia ofiziala, 12 pt
- Lerroarte: 1,5
- Goiko, beheko eta eskuineko marjinak: 2,5 cm; ezkerrekoa: 3,5 cm.
- Orriaren tamaina: DIN-A4

2. Ohiko estilo liburu jakin bateko arauak bete beharko ditu aurkezpenari, aipuei, bibliografiari, kapituluaren zenbakitze eta antolaketari, ondorioen aurkezpenari eta abarri dagokienez.

3. Azalean informazio hau agertu beharko da:

- Unibertsitateko logo ofiziala
- Graduaren izena
- Ikasturtea
- Lanaren izenburu osoa
- Egilea: [eta bi puntuen ostean, ikaslearen izen-abizenak]
- Zuzendaria: [eta bi puntuen ostean, tutorearen izen-abizenak]

4. Goian aipatutako arautegiko 4. artikuluari jarraituz, ikasleak GRALean:

- Saiatuko dira hizkuntza inklusiboa erabiltzen, eta genero ikuspegia kontuan hartzen gizakiei buruzko lanetan.
- Egindako lanari buruzko hausnarketa bat idatziko dute, 200 hitz ingurukoa, printzipio eta balio demokratikoen eta Garapen Jasangarriaren Helburuen (GJH) argitan. Lanaren atal espezifikoko bat izango da.

5. Ikaslea tentu handiz ibili beharko da, bere lanean inoren testuak kopiatu gabe parafrasia erabiliz. Plagioa lanak deskalifikatzeko arrazoia izango da, eta hitzez hitzeko aipamenetatik eta dokumentazio lan zorrotzetik bereizi behar da.